

## IKASLEAK, IRAKASLEAK ETA GURASOEN SAIOAK

**IKASLEENTZAKO SAIOAK:** maila bakoitzean landutako edukiak:

### LH 1 Jolasak berdintasunez. Jostailu ez sexista eta kooperatiboak. Lanbideak. Ipuin ez sexistak.

Gaiak lantzeko bereziki ipuinak, txotxongiloak eta antzerkitxoak erabiltzen dira. Metodologian bereziki ipuin-kontaktak erabiliko dira.

- Jolas kooperatiboak, tratu onak, berdintasuna, emozioak eta sozializazioa.
- Jolasak eta jostailuak genero-bereizkeriarik gabe, estereotipoak eta genero-rol tradizionaletik aldenduz.
- Lanbide eta lan-aukera ezberdinak eta anitzak, genero estereotiporik gabe
- Tradizionalki maskulinizatuak edo feminizatuak dauden lanbideen estereotipoak. Beste eredu batzuk.

### LH2: Aniztasuna, dibertsitatea, berdintasuna, elkarbizitza.

Gaiak lantzeko bereziki ipuinak, txotxongiloak eta antzerkitxoak erabiltzen dira. Metodologian bereziki ipuin kontaktak erabiliko dira.

- Desberdinak gara eta era askotakoak: genero aniztasuna, gorputz aniztasuna, aniztasun funtzionala, kulturala, soziala...
- Dibertsitatea, ezberdintasunak, berezitasunak. Bakarrak eta errepikaezinak, askotarikoak.
- Berezitasuna eta aniztasuna balorean jarri, onartu, aitortu eta errespetatu.
- Elkarbizitza, partekatzea eta elkar-ikastea.

### LH 3 eta 4: Gorputza, autoezagutza, sentimenduak, emozioak, harremanak.

- Gorputza ezagutu, maitatu, onartu eta zaindu
- Nor naiz ni? Norberaren identitatea onartu eta maitatu
- Autoezagutza, autoestimu fisikoa eta psikikoa.
- Emozioak eta sentimenduak identifikatzea eta kudeatzea.
- Ohitura onuragarriak eta osasuntsuak.
- Harreman solidarioak, enpatia eta errespetua.
- Tratu onak nire buruarekiko eta besteekiko.

### LH5. Berdintasunezko harremanak. Familia eredu aniztasunak. Etxeko eta zainketa lanen banaketa.

- Pertsona guztien giza eskubideekin eta berdintasunarekin bat datorren gizarte- eta familia-elkarbizitza lortzea.
- Gizartearen rolen banaketarekin apurtzea.
- Familia eredu ezberdinak. Aniztasunaren aberastasuna. Berdintasunezko harremanak.
- Ez naiz bakarrik bizi. Etxeko eta zaintza lanak berdintasunez eta parekidetasunez.

### LH6. Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu-aniztasuna. Pubertaroa.

- Sexualitatea ulertu eta onartu bere esanahirik zabalenean.
- Alderdi fisiologiko, psikologiko eta soziokulturalak. Sexu-aniztasuna.
- Gure gorputza errespetatzea eta ezagutzea: aldaketak, zaintza, norberak bere buruaz duen irudia. Nire burua zaintzen dut eta zu zaintzen zaitut.
- Maskulinitatea – feminitatea. Rol eta estereotipo sexualak.

#### DBH1. Sare sozialak. Tratu onak eta norbere buruaren babesa

- Mugikorra eta sare sozialak. Estereotipoak eta eduki sexistak sareetan.
- Zer partekatu sareetan: irudiak, bideoak... Zer erakutsi nahi dugu? Zergatik? Norberaren irudia zaindu.
- Ciberbullyng, sexting, grooming...
- Harremanak eta komunikazio digitala. Gezurrak eta iruzurrak. Arriskuak, gabeziak, mendekotasuna...

#### DBH2. Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu-aniztasuna

- Gure gorputza errespetatzea eta ezagutzea: nerabegaroko aldaketak, zainketak, norberak bere buruaz duen irudia.
- Harreman afektibo-sexual positiboak, errespetutik eta pertsonen arteko elkarriketatik abiatuta.
- Estereotipoak eta aurreiritzi sexualak
- Sexu-aniztasuna, generoa, identitatea eta norberak bere buruaz duen irudia.

#### DBH3. Maskulinitatea – feminitatea. Sexualitatea. Indarkeria sareetan

- Maskulinitatea – feminitatea. Aniztasuna. Estereotipoak
- On line jazarpena, kontrola, dominazioa, jazarpen psikologikoa
- Argazki eta bideo pertsonalak online partekatzearen arriskuak
- Ziberjazarpena, kontrol birtuala, grooming-a, sexting-a... Ziberdelituak

#### DBH4. Autodefentsa feminista eta maskulinitate eredu berriak. Maitasun erromantikoaren mitoa.

- Maitasun erromantikoaren mitoa. Sumisioa-dominazioa. Kontrola eta botere-harremanak
- Ligoteo eta harreman osasuntsuak eta parekideak
- Eredu normatibotik kanpo daudenekiko filiak eta fobiak
- Autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa

#### Erdi mailako zikloak eta Batxilergoa: Hezkuntza afektibo-sexuala. Autodefentsa feminista eta maskulinitate-eredu berriak.

- Hezkuntza sexuala bere zentzurik zabalenean: alderdi biologikoak, psikologikoak eta soziokulturalak
- Desira eta erotika. Intimitatea eta tratu oneko harremanak
- Nahi gabeko haurduntza eta sexu-transmisioko gaixotasunak. Jokabide arriskutsuak
- Metodo prebentiboak eta antikonzeptiboak

- Autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa.

Goi mailako zikloak eta Lanbide Hastapena: Tratu oneko harremanak, botere harremanak eta indarkeria matxista. Autodefentsa feminista eta maskulinitate-eredu berriak.

- Sexualitate-eredu ezberdinak, rolen banaketa eta botere-harremanak.
- Eredu normatibotik kanpo daudenekiko filiak eta fobiak. Sakontzea
- Jarrera matxistak, mikromatxismoak eta bortizkeria-modu desberdinak
- Indarkeria matxista
- Autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa

#### IRAKASLEAK:

Irakasleentzako formakuntza- eta aholkularitza-saioak: ikastetxeko irakasleek proposatuko dituzte formakuntza-saioetan landu nahi dituzten gaiak, beti ere programa honetan landuko diren gaiekin zerikusia badute.

Formakuntza-saioak ziklo bakoitzeko irakasle guztiekin batera egiten dira.

#### GURASOAK:

Gurasoentzako saio bat, non seme-alabek ikasgelan landu dituzten edukiei buruzko informazioa eta aholkularitza emango zaien.

Hezkuntza afektibo-sexualari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko bi formakuntza saio.